

143. FITXA GIPUZKOA-Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoa Taldean –programako diru-laguntzak - Gazteen ongizate emozionala sustatzeko proiektuak

Nori zuzendua: udalak, tokiko erakunde txikiak, mankomunitateak, unibertsitateak, lanbide-heziketako zentroak, ikastetxeak, elkarteak, fundazioak, enpresa publikoak eta pribatuak, garapen-agentziak edo beste administrazio batzuk.

Sarbide-esteka: [Egoitza elektronikoa - Egoitza elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziako araudia: [Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoa Taldean – Gazteen ongizate emozionala sustatzeko proiektuen 2025eko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia](#)

Eremuak: Gazteria

Zenbatekoa: 300.000€

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/11 (12:00ak arte)

Laburpena

Xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren esparruan, **prebentzioaren ikuspegitik, Gipuzkoako gazteen ongizate emozionala sustatzen duten proiektuak finantzatzea**. Proiektu horiek izaera berritzailea izan beharko dute, lurraldeko erakundeen eta eragileen arteko lankidetzak sustatu beharko dute eta ikuspegi komunitario eta integratzailea izan beharko dute.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Prebentzio unibertsaleko proiektuak, Gipuzkoako adingabeentzat, batez ere 12 eta 17 urte bitartekoentzat, babes-faktoreak indartzeko eta haien ongizate emozionalari eragin diezaioketen arrisku aldagaiak murrizteko. Proiektuek helburu hauek izan beharko dituzte:

- Dagokion lurralde-eremuan lehendik dauden ekimenen koordinazioa eta konbergentzia sustatzea, inpaktu esanguratsuagoa lortzeko: ongizate emozionalaren eremuan dauden askotariko baliabideak dinamizatzea eta bateratzea, lankidetzak publiko-pribatu-sozialerako modu eta egitura berriak proposatzea, eta esku-hartzeen inpaktua optimizatzea.

- Ingurune errealean, lankidetzan oinarritutako prozesu, metodo edo sare komunitario berritzaileak pilotatzea, lurraldean erreferentzia izan daitezen eta, beraz, eragin biderkatzailea izan dezaten.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaeraren xede diren jarduketak **2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko irailaren 15era bitartean** gauzatu beharko dira. Justifikazio kontu partziala **2025eko azaroaren 14a** baino lehen aurkeztu beharko da, eta jarduketaren gauzatze osoa egiaztatzeko azken kontua, berriz, **2026ko urriaren 15a** baino lehen.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektuek diruz lagundu daitezkeen gastuak jaso beharko dituzte, **gutxienez 70.000 euroko** aurrekontuarekin.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa **60.000 euroko**a izango da.

Intereseko beste alderdi batzuk

Deialdiaren aurkezpen orokor bat telematikoki egingo da, Teamsen esteka baten bidez. Esteka hori deialdia argitaratu eta lehen astean hala eskatzen dutenei bidaliko zaie.

Aurkezpen horretan, interesdunek deialdiaren inguruko zalantzak argitu ahal izango dituzte.

Horretarako, parte hartuko duten pertsonen eskatzen zaie mezu elektronikoko bat bidal dezatela estrategia@gipuzkoa.eus helbidera, gaian «Gipuzkoa Taldean 2025 - Gazteak» deialdia aipatuz.